

Denboraren makina
Unicornis
Rhinoceros

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Ihesi
Asaba zaharren
baratzean

ARGIA

erdiko kaira

kultura eta aisia

Kaxa hutsa arakutzen

Kaxa huts bat du izena Beñat Sarasolak (Donostia, 1984) Susa argitaletxearen eskutik kaleratu duen lehen poema liburuak. Izenburua gezur galanta da inondik ere, kaxaren ertzero sudurra hurbilduta gainezka dagoela ikusiko baitu irakurleak berehala. Izenez gainezka, umorez eta ironiaz bezainbat.

Pott Bandatik Mike Tysonengana, Donostiako Bermingham kaletik New Yorkera, laurogeigarren hamarkadatik gaur egunera. Aurtengo apirilean —ba ote poesia argitaratzeko hilabete hoberik?— ikusi zuen argia liburuak. Koskortu samarra dago honezkero. Hartaz hitz egiteko ordua da beraz.

Beñat
Sarasola

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco



**Erreferentzia literario asko dago liburuan. Literatur mundutik kanpo dagoen irakurlea urruntzeko arris-
kurik ez duzu ikusten?**

Hori da metaliteraturari eta tes-
tuartekotasunari egozten zaion
gaitzetako bat, baina nik askotan
erreferentzia horiek ez ditut erabili
esanahiaren ikuspuntutik bakarrik.
Izen propioak duen indarrarenga-
tik erabili ditut, adibidez. Izen pro-
pioak niretzat badu arruntak ez
duen indarra eta askotan erabili
ditut, baina ez bereziki esanahi
konkretu bat dutelako. Adibidez
Kenneth Koch aipatzen badut, ez
da bereziki Kenneth Kochi buruz
zerbait idatzi nahi dudalako. New
Yorki buruz zerbait idazten ari
naiz, hango poeta da, umorea era-
biltzen du eta abar.

Gainera niri gustatzen zaizki-
dan idazle askok erabiltzen dituz-
te erreferentzia horiek. Askotan
eskapatu egiten zaizkizu errefe-
renteak baina hala ere nik liburu
horiekin asko gozatu dut. Adibi-
dez Enrique Vila-Matas-en
Baterbly y compañía nahiko gazterik
irakurri nuen eta erreferentzia
gehienak ezagutu ez arren gozatu
egin nuen; esanahi osoa –halako-
rik baldin bada– ulertu ezean ira-
kurketan gozatu ezin delako ideia
okerra iruditzen zait guztiz.
Horregatik nire esperantza da
nahiz eta jendeak literaturaren
inguruan gehiegi ez jakin, libu-
ruarekin gozatzea.

**Erreferentzia berriak eskaintzeko
aukera ere izan liteke?**

Intertestuak ahalmentzen duena
da esanahiak multiplikatzeta, irado-
kitzea. Jolas egiten duzu zuk esan
nahi duzunarekin eta testu zati
horrek esaten duenarekin beste
testuinguru batean.

Hain zuzen eremulauak.com-en ida-
tzi zenuen artikulua batean metalite-
raturaz aritua zinen. Liburu honen

«Idaztea nahiko ekintza inozoa da seguruenik»

lehen atalean ideia haietako batzuk praktikara eramantuzula dirudi.

Erlazioa badago, baina kontuan izan behar da liburuko poema gehienak artikulua hura idatzi baino lehenagokoak direla, asko bai behintzat. Ez dut kontzienteki egin, ez dut liburua egin programa poetiko bezala, baina erlazioa badu, noski.

Ez al zenuen liburu batean pentsatzen poemak idazterakoan?

Hasieran ez. Poema batzuk liburu batean aterako zirela jakin gabe idatzita daude eta beste batzuk liburua aterako zela jakinda. Asko solteak dira, berez batasun asmorik ez dutenak. Batasun hori ematea geroke gauza izan da.

Kaxa hutsaren kontzeptuak ematen dio apika batasuna. Liburu poliedrikoa dela esango nuke: jarrera ironikoa dago poema batzuetan, beste batzuetan alde pertsonalagoa ageri da...

Bai, besteak beste poema zaharrenak bost urte edo izango dituelako. Denbora tarte horretan denetatik idatzi dut. Arazoetako bat horixe izan dut: batasuna ematea. Liburu honen arazoa ez da monotonoa edo errepikakorra izatea, ez dut uste behintzat, baizik eta batasun hori nola lortu. Hori asko kostatu zitzaidan bere garaian, baina nik uste lortu dudala. Baina egia da liburua nahiko heterogeneoa dela.

Oda poema baztertuei edo diegesia eremutik kanpo. Poema asko baztertu al dituzu?

Bai, dezente. Poema hori idatzi nuen azkena da, edo azkenetakoa. Bazterrean geratu dira atera direnak baino gehiago. Horiek inoiz publikatuko ez diren poema markatuak dira.

Arrazoi konkreturen batengatik?

Poemak liburutik kanpo geratzen direnean niretzat markatuta geratzen dira. Sari batera lanen bat bidaltzen duzunean eta saria ematen ez ditzutenean bezala da, lan hori markatuta geratzen da.

New York aipatu duzu lehenago. Gernikako arbola atalean azaltzen den hiria da, Berlinen hasi eta Sagar Handian amaitzen den atala hain zuzen. Ez zara bertatik bertara ibili.

Nire aberria azaltzen da islatutik hor. Berlinekin hasi dut eta New Yorkekin amaitu, niretzat sinbolikoki bi hiri potente direlako. Gero, atalaren barruan badira erreferentzia zuzenak Euskal Herriari, baina bai, aberri zabala da.

"Ez espero epikarik" diozu beste poema batean. Liburuaren ezaugarriak aipatzen hasita epikaren aurka egote hori ere konstantea da.

Epikarik badago behintzat inkontzienteki egin dut. Utopietan, erromantizismoan, enpresa handietan... ez dut sinesten, ez zaizkit interesatzen.

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a





Gainera auzoa, Z/G

20212 Olaberria

☎ 943 16 08 62

www.vilarinomotor.com

info@vilarinomotor.com

Postmodernitatearen adierazgarri izan daiteke hori. Hitzaz ez zaizula gustatzen esan izan duzu.

Terminoak nahiko lausoa da. Segun eta nork erabiltzen duen konnotazio diferentek ditu. Postmodernitatearen konnotazio eskuindarra eta erabat erlatibista adibidez, ez zait interesatzen. Baina beste ikuspuntu batetik, oso interesgarria iruditzen zait postmodernitatea proiektu moderno eta askotan totalitariei egindako kritika bezala. Nahi duzun bezala deitu: postmodernitatea, modernitate likidoa... Proiektu totalitariei egindako kritika errotikoa eta halako eszeptizismo puntu bat interesgarriak eta beharrezkoak iruditzen zaizkit.

Zentzu horretan nola ikusten duzu euskal literatura?

Ez nuke jakingo esaten konkretuki literatura postmodernoa zer izango litzatekeen. Bai uste dut euskal literaturan badaogoela joera nagusi bat halako begirada xalota duena, *Obabakoak*-eko Atxagaren ildotik doana nolabait. Igartza Saria irabazi dutenen artean nahiko dira horrelakoak adibidez. Nik tonu horrekin ez dut bat egiten, ingenuogia iruditzen zait. Agian nire arazoa da, ni baino inteligenteagoak direlako izan liteke, nik ingenuitatea ikusten dudana horretan beraiek kritika edo ironia egiten ari direlako, baina nik ez dut ikusten. Zentzu horretan nahiko literatura konformista iruditzen zait. Ez dakit honek guztiak zer duen ikusteko modernitatearekin-eta, baina botatzeko gogoia nuen.

Harkaitz Canok *Neguko zirkua*-n "Groucho liburua" aipatzen zuen, mundua esplikatzeko saiatu ondoren, idazleak barre egiteko erabiltzen duena. Hau tankera horretakoa delakoan nago, ez duzula mundua esplikatu nahi izan.

Esan behar da hau dela argitaratu dudana lehen liburua, baina liburua proiektu bat baino gehiago egon da lehenago. Beste poema liburua bat osatua izan nuen, eta noski, hori ez zen batere "Groucho liburua". Nerabezaroan idatzitako poemak ziren, Harkaitz Canoren *Kea behelainopean bezala*-k eraginda. Orain, zazpi bat urte pasa ondoren gauza nahiko tontoa iruditzen zait,



"Proiektu totalitariei egindako kritika errotikoa eta halako eszeptizismo puntu bat interesgarriak iruditzen zaizkit"

baina fase horretatik ere pasa behar da. Inor ez da jaiotzen eszeptiko eta ironiko: jende guztiak izan ditu bere ametsak, bere delirio fantastikoak. Dena dela, liburua hau "Groucho liburua" izango balitz poztuko nintzateke.

Suizidioaren gaia askotan atera dela iruditzen zait: lan Curtis, *Hitz egiteko modu bat* poema...

Beti izan dut suizidioaz idazteko joera. Hamasei urterekin edo, amari esan nion suizidioaren inguruko ipuin bat idazten ari nintzela eta gurasoak erabat izutu ziren. Noski, literaturaren inguruan dagoen ikuspegi topikoak dio bakoitzak bere sentimenduez eta bizitzaz idazten duela. Orduan norbaitek suizidioaz idazten badu arduratzekoa da. Agian nire alabak suizidioaz idatziko balu arduratuko nintzateke, ez dakit, aitasunak tenteldu egiten omen du sarritan; baina nire kasuan autobiografikotik gutxi dauka: donostiarra naiz, unibertsitariora, hondartza bost minutura daukat... kexatzeko arrazoi gutxi. Baina suizidioa gai potentea da, literaturan askotan erabili izan dena eta arriskuak ere badituena, fribolizatzeko erraza delako.

Hitz egiteko modu bat poema broma modura hartutakoa da: pentsa hil ondoren beste bizitza bat dagoela... suizidatzea alferrikakoa litzateke. Jarrai dezagun bizitzen nola edo hala.

Kexatzeko arrazoirik ez beraz, *Gure belaunaldia* poeman ere hori iradokitzen duzu. Zertarako idatzi orduan?

Hori galdetzen diot nire buruari: "horrenbeste gauza diferente egin daitezkeen mundu honetan, zer demontre egiten dut idazten?" Idaztea nahiko ekintza inozoa da seguruenik. Hala ere, neurri batean idazketa autokontzientzia garatzeko modu bat da, zu zeu, zure mundua eta zure belaunaldia nolako den ikusteko, eta horrekin ironizatzeko... ez dakit. Ez dut sinesten *Gure belaunaldia*-n esaten dudana gauza askotan, baina bestetik badu egia zer edo zer. Hor posizio bat mantentzea zaila da, baina horregatik idazten duzu. Ez dago erantzun bakar bat eta aukera diferentek irekitzen dira. ■